

Bereizketa

Elkartu ginen egunean bertan hasi zen, agian:
hormetarako estanpatua edo kolore laua aukeratzean tentuz.
Sukaldea kolore pastel, lau, txepelaz, nik.
Trukean zuk kako japoniar zatarra
zure izekok oparitutako zapela zintzilikatzeko.
Nik egongela, lore estanpatuz,
zuk zure artean: “hik irabazi duk, beraz”.
Hasieratik banatuak genituen apartamentuko metro util sotilak.
Loa ere aspaldian txandaka, zentinelek gazteluan nola.
Armairuak, tiraderak, apalak, baldosak,
geometria izotz zenez, konpas deskonpasatuez,
nork bere territorioak, nork bere kuxinak,
sofan bertan ere nork bere oxigeno dezimetro koadroak,
nork lagunari jelsia eragiteko bere proportzio eskubidezkoa
nork bere maitaleak, nork bere orduak seme-alabarik gabe,
nork bere familia artatu beharra,
nork bere adiskide zaharren erretolika irrigarriak,
nork bere mugak lagunaren lagunei grazia inozoak txalotzean,
nork bestearen lagun minekin flirt egin
eta bikotea umiliatzeko okasio noizbehinkakoren bat.
“Izpirituak eta zekenkeriak ere baditin bere kuotak,
bizitzaren eskolan ikasten dun hori”.
Baina gero diskoak, gero liburuak, gero gutunak,
zenbait auzo zapaltzeko beto eskubide inplizito bat airean,
helbide-agenda ere egunkariko gehigarriak bezala
banatu beharra; “*Babelia, El Viajero, Motor*, zein nahi dun?”
lagunak ere leon castillo, zotz ala motz, enetzat ala hiretzat,
Orrialde Horien listina bitan apurtzea bezala,
ezinezkoa da, lan titanikoa, azazkalen galbide.
Asimetrikoa dateke bereizketa pareka ez direnean gauzak:
“Edurne hautatzen baduk, bye bye 70.eko soul diskoen
bildumari, bai?”. Aukeratu egin behar.
Ez da samurra, bereizketa.
Inork bere etxe berrirako nahi ez dituen,
eta tximiniarik bazenute suari emango zenizkioketen
gauza guztiez ez hitz egitearren:
nik zuri eta zuk niri idatzitako guztiak
ezkontzako argazkiak (euria ari zuen)
alabaren argazkiak zurekin (zuk ez dakizu dauzkadanik)
semearen fotoak nirekin (nik ez dakit dauzkazunik)
zuk semeari oparituak
nik alabari oparituak
nik oparituak
zuk oparituak
nork nori
garbi ez dauden opariak
-duda kasuan, dena erretzea onena:

tuberkulosiak jotakoen arropetan ere Koch baziloren bat
gera daiteke; osatuta egon arren, zer gerta ere
kimioarekin jarraitzen dute beste hiru astez
gaixoa aski gaztea bada, jasango du, aterako da aurrera,
badaezpada, badaezpada. Ezta, bada.
Telebista, hozkailua, aulki tolesgarriak (hiru),
ordutegiak ere banatu,
“Biba Churchill! II. Mundu Gerrako partiketan ere
ez zitean segur halako lanik izan!”, zuk zure artean.
Eta ez hori bakarrik, hau ez da sekula bukatzen:
moztu, bukatu, kito eta banatzea, finitzea da
aurrerantzean elkarri itzuri egingo diogun metroko geltokiak
gustuko jatetxeak, dermatologoaren telefonoa,
zakurra, Tom eta Jerry arrain laranjak,
Jean Vigoren edizio kritikoa, bixkiak,
taxi paradak, hiriko hiru hondartzak,
Banana Split erara egiteko errezeta liburua,
Taroteko kartzelaren eta eguzkiaren kartak,
kaleak eta hurrengo hogeita hamar urteetan
zapalduko ditugun tabernak ere banatu beharra.

Errazagoa da hagitzez, norbere burua bitan bereiztea
psikofarmakoz edo aizkoraz, triangularki ia beti,
geometria izotz denez.

Separación

Empezó, quizás, el día en que nos juntamos:
Cuidado con elegir este estampado o ese color liso para la pared.
En la cocina color pastel, cuatro, insubstancial, yo.
A cambio tu ese feo gancho japonés
Para colgar el sombrero que te regaló tu tía.
Yo el salón, de flores estampados,
Para ti misma: “bueno, tu has ganado”.
Desde el principio teníamos repartidos los prudentes metros útiles del apartamento.
Desde hace tiempo ya el sueño también alternado, como los centinelas en el castillo.
Armarios, cajones, estantes, baldosas,
Como la geometría era, al compás descompasado,
Cada cual sus territorios, cada cual sus cojines,
En el mismo sofá también cada cual sus decímetros cuadrados de oxígeno,
su proporción de derecho para provocar celos al compañero o compañera,
cada cual sus amantes, cada cual sus horas sin hij@s,
cada cual tener que cuidar su familia,
cada cual con las palabrerías graciosas de sus amig@s,
cada cual con sus límites al aplaudir a l@s amig@s las gracias tontas,
flirtear con l@s amig@s intim@s del otro
y alguna ocasión ocasional para humillar a la pareja.
“El espíritu y la avaricia también tiene sus cuotas, *chica*,
Eso lo aprendes en la escuela de la vida”.
Pero luego discos, luego libros, luego cartas,
El derecho implícito a beto en el aire para pisar al prójimo,
Tener que repartir también la agenda de direcciones como suplementos del;
“*Babelia, El Viajero, Motor, ¿cuál quieres, baby?*”
Los amigos también, león castillo, lo echamos a suertes, para mí o para ti,
Como romper el listín de Las Páginas Amarillas por la mitad,
imposible, trabajo de titanes, pérdida de las uñas.
Sería asimétrico la separación cuando las cosas no son a pares:
“Si eliges a Edurne, bye bye a la colección de discos soul de los 70, si?”. Hay que
elegir.
No es fácil, la separación.
Por no hablar de todas esas cosas que
Nadie quiere para su nueva casa,
Y que echaríamos al fuego de la chimenea.
Todo lo escrito yo a ti y tu a mí
Las fotos de la boda (llovía)
Las fotos de la hija contigo (tu no sabes que los tengo)
Las fotos de tu hijo conmigo (yo no sé que los tienes)
Las regaladas al hijo tu
Las regaladas a la hija yo
Regaladas yo
Regaladas tu
Regalos que no está claro
Quién a quién regaló
-en caso de duda, mejor quemarlo todo:

Harkaitz Cano

Puede quedar algun bacilo de Koch tambien en las ropas plagadas de tuberculosis;
Aun estando curado, por si acaso
Siguen con la quimio otras tres semanas
Cuando el paciente es bastante joven, lo soportará, saldrá adelante,
Por si acaso. Si es, no es.
Televisión, frigorifico, sillas plegables (tres),
Repartir el horario,
“Biba Churchill! Seguro que tampoco en la particion de la II. Guerra Mundial
No tuvieron tanto trabajo, *chico!*”, tu a ti mismo.
Y no solo eso, esto no acaba nunca:
cortar, acabar, fin y repartir, es acabar
y luego huiremos uno del otro en las estaciones del metro
los restaurantes favoritos, el telefono del dermatologo,
el perro, los peces naranjas Tom y Jerry
la edicion critica de Jean Vigo, los gemelos,
paradas de taxi, las tres playas de la ciudad,
libro de recetas para hacer al modo Banana Split
las cartas de la carcel del Tarot y del sol,
las calles y tener que repartir tambien
en los siguientes treinta años los bares que pisaremos.

Es mucho mas facil, partirse uno mismo por la mitad
Con psicofarmacos y hachas, casi siempre triangularmente,
Ya que la geometria es hielo.

Alde egin

**Zenbat jende ez ote da aldatu auzoz, hiriz, kontinentez,
norbere sustraiak usteltzean
sortzen den kiratsetik ihes?**

Huir

¿Cuanta gente no se habra trasladado de barrio,
De ciudad, de continente,
Huyendo del mal olor desprendido
De las raices de uno mismo?

Fuir

*Combien de personnes n'auront pas quitté le quartier,
Ville, continent,
Fuyant l'odeur individuelle
Les racines de l'auto?*

Maratila bat gauez

Nola ez naizen sekula ohituko hegazkinetan dugun fede itsura,
heriotzaren itxarongelan bezain adeitsu
izaten saiatzen naiz 4F besaulkian.

Aparailuan doazen ia guztiak
dira ni baino gazteagoak: esan ahal nuke, ziur,
bertan eroriko balitz trastea,
nik haiek baino etekin handiagoa atera diodanik bizitzari?
Ez daukagu izenik. *Leihatilakoa* naiz ni, bera, *Korridorekoa*.
Irribarre egin dit (“motorrik gabe ere planea dezakete
helizedun txiki hauek, deskuidoan”,
betiko elezahar gezurtia hitzik gabe azpimarratuz bezala).
Liburuan murgildu naiz.

De Lucak dio: “gazta bat da
katedral baten lehen harria”.

Behean geratu ahala, ezabatuz doa paisajearen zaborra, inperfekzioa, pitzadura.
Bere leuntasuna –Korridorekoaren irribarreez ari naiz orain–
poema ala igandeko zutabe bilakatuko ote dudan deliberatu ezinik noa
–momentuz *Korridorekoa* da bera, besterik ez–.

De Lucak dio: “gizon baten bizitzak,
hiru zaldiren bizitzak adina irauten du”
(eta edozein cowboyek daki iheserako bi behar direla gutxienez,
lehen zaldia nekatzerako biga).

De Lucak dio: “ez da gauza bera baporezko maitasuna
edo turbinaz bultzatakoa”.

Korridorekoaren hatzetako eraztunak irakurtzen saiatu naiz:
ainendi, bisuteriaren entomologo.

Nola guk egin beharreko mugimendu mekaniko oro
laga diogun fededunok hegazkinari,
lur hartzeko gurpilek muturra atera dute gure oinen pean.

De Lucak dio: “alderantziz jantzitako koroa da errapea,
behiak behar luke Afrikako errege”.

Gerrikoak eutsi gaitu, etxetik batere gabe etorri garen arren
–korridoreko neska ere bai, gabe etorri da etxetik–.

“Tentuz altxatzean, litekeena da ekipaia lekuz mugitu izana”

–De Lucaren bihotz sandia adinakoak bere tokian darrai–,
baina arrazoi zuen azafatak eta maleta kazkabarrak erasandakoan
sorbaldan jarri dit eskua neskak,
ilunpean maratila bat laztantzen duenak bezala.

Ireki dituzte aireplanoko atea. Erabaki dut: poema bat izango da.
(Poeta gizajoak hori du: estatus emailtzeat duela bere burua).

Korridorekoa bere zilborreste telefonikoari korapilatu zaio:
“Iritsi naiz, laztana”.

**Bakarrik geratu gara De Luca eta biok. “Eta orain zer, Erri?”
Fingerraren pasarelako malenkonia: moketa usaina,
erretzaileen presa. Ez dut gogoan
lur hartu dugun hiriaren izena,
ez eskala-hiri ote den hau, edo ailegaerako.**

**Automatikoak dira ate guztiak
eta nik maratila bat behar nuen gaue**

Un picaporte en la noche

Como no me voy a acostumbrar nunca a la fe ciega que tenemos en los aviones,
Tratare de ser tan respetuoso como en la sala de estar de la muerte
En el asiento 4F.

Casi todos los que van en el aparato
Son mas jovenes que yo: ¿podria decir, seguro,
Que en el caso de que se caiga ahora mismo el trasto
Yo haya aprovechado mejor la vida?
No tenemos nombres. Yo soy *el de la ventanilla*, el, *el del pasillo*.
Me ha sonreido (“por algun casual, estos helices pequeños podran planear sin motor,
como remarcando sin palabras la leyenda mentirosa de siempre”).
Me he sumergido en el libro.
Dice De Luca: “un queso es la primera piedra de una catedral”.
A medida que va quedando abajo,
Se borra la basura, la imperfección, la hendidura del paisaje.
Su suavidad –ahora hablo de la sonrisa del Pasillo–
No puedo decidir si se convertirá en poema o en una columna dominical
–de momento es el del *Pasillo*, nada más–.
Dice De Luca: “la vida de un hombre dura lo que dura la vida de tres caballos”
(y cualquier cowboy sabe que para huir se necesita por lo menos dos, para cuando se
cansé el primer caballo, el segundo).
Dice De Luca: “no es lo mismo el amor de vapor o movido por turbinas”.
He intentado leer los anillos de los dedos del Pasillo:
ainendi, entomologo de la bisuteria.
Como todos los movimientos mecanicos que tenemos que hacer, nosotros los creyentes,
le hemos dejado al avión,
Las ruedas de aterrizaje se han asomado bajo nuestros pies.
Dice De Luca: “la ubre es la corona al revés, la vaca debería ser la reina de Africa”.
Nos sostiene el cinturón, aunque hemos venido de casa sin uno
–la chica del pasillo también, ha venido de casa sin uno–.
“Al levantarme con cuidado, es probable que el equipaje se haya movido de sitio”
–el corazón tamaño sandía de De Luca sigue en su sitio–,
Pero tenía razón la azafata y al acoso de montón de maletas,
La chica me ha puesto la mano en el hombro,
Como quien acaricia en la oscuridad el picaporte.
Han abierto las puertas del aeroplano.

Harkaitz Cano

Lo he decidido: será un poema. (tiene eso el pobre poeta: se tiene por estatus de donante).

La del pasillo se ha enredado en su cordón umbilical telefónico:
“Cariño, he llegado”.

Nos hemos quedado solos De Luca y yo. “Y ahora Erri, ¿qué?”

La malenconia de la pasarela de *Finger*: el olor de moqueta, la prisa del fumador.

No recuerdo el nombre de la ciudad en que hemos aterrizado,

Ni si es una ciudad-escala, o de llegada.

Todas las puertas son automáticas

Y yo necesitaba un picaporte en la no

Maitale ohiak gomendatu zizkidanak

Eginahalak egin: ahal bada ez atera erretratuetan.

Beste erremediorik ez balego, jarri atzeneko ilaran.

Beste erremediorik ez balego, haizena baino zaharrago atera hazala beti argazkilariak.

**Beha horri: doan denbora ez da doakoa
–dohakabea, agian–.**

**Jakin gailera kutxatako heure argazkiak
besteentzako altxorak direla beti; ez heurtzat.**

Beha amuari, beha begiari: bi-biak dituk gauza bera.

**Beha odol arrastoari:
heure begia dateke hurrengoan amuko
–heure heste-korapiloa damuko–.**

Beha, ez ahaztu: zoriona duk mendekurik onena.

**Depresioaren zakur beltzari erran, begi beltzetara so:
“Enteratu hadi, perrua, beltzagoak dituk ene begi perruak”.**

**Eskua laztantzen jarraitu agurrekoan, otoi,
sekula heure oherik nahiko ez dugun emakumeoi.**

Ez uko egin festei jai-ugazabandrearekin muzindu haizelako soilik.

Beha, ez ahaztu. Izan eskuzabal:

ez hadila sekula festa uzten azkena izan.

Los que recomendó mi ex-amante

Haz todo lo posible: si es posible no salgas en las fotos.

Si no hubiera otro remedio, ponte en la última fila.

Si no hubiera otro remedio, que el fotógrafo te saque siempre
Más viejo de lo que eres.

Mira a ese: el tiempo que se va no es en balde
—quizá, desafortunado—.

Saber que tus fotos de las cajas de galletas
Para los demás siempre serán un tesoro; no para ti.

Mira al anzuelo, mira al ojo: ambos son la misma cosa.

Mira a la huella de sangre:
La próxima podría estar tu ojo como anzuelo
—como señal de arrepentimiento tus nudos de intestino—.

Mira, no olvides: la felicidad es la mejor venganza.

Decirle al perro negro de la depresión, mirándole a sus ojos negros:
“Enterate, perro, más negros son mis ojos perros”.

Sigue acariciando la mano en la despedida, por favor,
A estas mujeres que nunca tenemos suficiente tu cama.

No te niegues nunca a las fiestas con la jefa,
solo porque te has enfadado.

Mira, no lo olvides. Sé generoso:

Nunca seas el/la última en dejar la fiesta.

Norbait berria

Zuretzat berria den norbait, beste inorentzat oso zahar dena.
Zuretzat distira den norbait, beste askorentzat txingor itzali;
zurekin inoiz desengainatu ez den norbait, luxu itzela,
elur erori berria elur erori berriari koplaka bezala.
Faltsua den lehen inpresio aratz hori, dena abantaila.
Elkarren iraganik gabe –enteratuko zara, galdetuko duzu berataz-.
Gauza gutxi iraganik gabe zugana oinez datorren
berrogei urteko emakumea gaindi dezakeenik.
Oheratu aurretik hartu beharko dituzuen arauzko hogeikafeen aurretik
unerik intentsoena: zapatetatik mototsera hura usaintzearekin izan duzun
fantasia.
Kiwi betuna, behatz zigortuak, belaun nekatuak, gerri perfektua, kraterrak
masailetan:
“azal hau ez duk betirako” gogoeta saihestezina,
ez da uste duzun bezain garaiz
inoiz ez da uste duzun bezain garaiz
zeuretzat oraindik berria denean bera artean.

Zuretzat berria den norbait, beste inorentzat oso zahar.

Baina laster ez hain berri, laster ez.

Ez dituzu arrisku seinaleak, tibia gurutzatuak eta garezurak,
¡Atención! peligro de muerte, errespetatu.

Norbait berria da, non ezarri defentsa lerroak,
nola desbideratu grinaren uhinak, nola aurre egin horri, nola egin aurri?

Norbait berria da, prefosta.

Norbait berria, mirari hori.

Alguien nuevo

Lo que para ti es nuevo, es muy viejo para otro.
Lo que para ti es alguien que brilla, para muchos otros es piedra apagada;
Quien no se ha desengañado nunca contigo, menudo lujo,
Como cantando coplas la nieve recién caída a la nieve recién caída.
Esa primera impresión pura que es falsa, todo ventajas.
Sin pasado del uno del otro –te enterarás, preguntarás por el/ella -.
Pocas cosas sin pasado que puedan superar a la mujer de cuarenta años que viene hacia
a ti.
El momento más intenso antes de los veinte reglamentarios cafés que tendréis que tomar
antes de acostaros: la fantasía que has tenido al olerla desde los zapatos hasta el moño.
El betún Kiwi, dedos de los pies castigados, rodillas cansadas, cintura perfecta, cráteres
en las mejillas:
“esta piel no lo tendrás siempre” un pensamiento ineludible,
No es tan a tiempo como crees,
Nunca es tan a tiempo como crees,
Mientras que para ti sea todavía nuevo.

Alguien que para ti es nuevo, para otro es muy viejo.

Pero pronto no tan nuevo, pronto no.

No has respetado,
¡Atención! Peligro de muerte...
Las señales de riesgo, tibias cruzadas y calaveras.

Es alguien nuevo, ¿donde poner las líneas de defensas?
¿como desviar las olas de pasión?
¿como hacerle frente?

Es alguien nuevo, sin duda.

Es alguien nuevo, ese milagro.

Txekhov vs. Yahoo (edo: diglosia eta teknologia)

**Anton Txekhoven esanetan, hiru bide har ditzake pertsona batek bizitzan:
eskuinekoa hautatuz gero, otsoek irentsiko zaituzte,
ezkerrekoa hautatuz gero, zerorrek irentsiko dituzu otsoak;
erdikoa hautatzen baduzu, zeure burua irentsiko duzu.**

Yahoo Chat-en arabera, badira beste hiru:

Available (itxura penagarria: hel niri!)

Busy (bai interesgarria berori, izaki harresitua)

Invisible (ez zaituzte ikusten, ez zara existitzen)

Ikusezin izatea hautatzen dut, zalantza izpirik gabe.

**Eta ikusezintasuna hautatzen duten haiekin soilik
izan dezaket etorkizun bat amankomunean.**

Maite dut beste izaki ikusezinekin gutun-trukea.

Maite dut haiek marraztea,

haiek marraz nazaten.

Maite dut haiekin

(el sistema ha detectado un error y ha debido cerrarse inesperadamente. Puede que no se hayan guardado los últimos cambios realizados)

Txekhov vs. Yahoo (o: diglosia y tecnologia)

Según Anton Txekhov, una persona puede coger tres caminos en su vida:
Si eliges el de la derecha, te comerán los lobos,
Si eliges el de la izquierda, comerás tu los lobos,
Si eliges el de la mitad, te comerás a ti mismo.

Segun Yahoo Chat, hay otros tres:

Available (aspecto lamentable: ¡tomame!)
Busy (si que es interesante, ser amurallado)
Invisible (no te ven, no existes)

Elijo ser invisible, sin lugar a dudas.
Y solo tendre un futuro en comun
Con aquellos que eligen ser invisibles.

Me gusta intercambiar cartas con otros seres invisibles.
Me gusta dibujarles,
Que ellos me dibujen.

Con ellos me gusta...

(el sistema ha detectado un error y ha debido cerrarse inesperadamente. Puede que no se hayan guardado los últimos cambios realizados)

Tchekhov vs. Yahoo (ou: diglosia et la technologie)

Selon Anton Tchekhov, une personne peut prendre dans sa vie trois chemins:
Si vous choisissez le droit, les loups vous mangent,
Si vous choisissez la gauche, vous mangez les loups,
Si vous choisissez la moitié, vous mangerez à vous-meme.

Selon Yahoo Chat, il ya trois autres:

Disponible (aspect lamentable)
Occupé (si cela est intéressant)
Invisible (on ne te vois pas, tu n'existes pas)

J'ai choisi être invisible, sans doute.
et seulement j'aurai un avenir commun
avec ceux qui choisi etre Invisibles.

J'aime ecrire avec qui choisi etre Invisible.
J'aime les dessiner,
qu'eux me dessine.

Avec eux, j'aime...

(Le système a détecté une erreur et a été due à cerrarse inesperadamente. Guardado peut qu'il n'y ait aucun changement dans le passé)

Huntzak bere bidea egiten du

**Huntzak bere bidea egiten du
eta guk gurea.**

**Gutxi esatea da hori baina,
asko litzateke egia balitz.**

La hiedra hace su camino

La hiedra hace su camino
Y nosotros el nuestro.

Decir eso es poco pero,
Sería mucho si fuera verdad.

Le lierre fait son chemin

Le lierre fait son chemin
Et nous le nous.

C'est dire peu, mais
Il serait beaucoup si c'était vrai

Telefonoz deitzen diodan jendea

Badago garai batean asko maitatu eta orain urtebetetze egunean soilik deitzen diozun jendea.
Lan kontuak haizatu eta mesede bat eskatzeko deitzen diozuna.
Fakultateko inozoren bat, zure frakasoaren temperatura berritzeko hots egiten dizuna: “ni ez, baina bera... *inoiz ez*”.
Badago emazteak utzi zaituenean soilik deitzen diozun jendea (senarrak utzi duenean soilik deitzen dizuna, bestalde).
Badago gertuago balego hainbeste deituko ez zeniokeen jendea.
Badago kontu hartzeko deitzen diozun jendea, kargu hartzeko hots egiten dizuna.
Badago lau urtean behin deitu arren, masailez masail eta arimaz arima izpiritua epeldu eta zurekin dagoela sentiarazten dizun jendea.
Badaude basamortuko ispilukeria diren deiak, komertzial zapuztuak; *le interesaría si, le ha tocado un*.
Badago jendea, “deituko diat nik berehala”.
beti norbait garrantzitsuagoa duena beste adarrean, eta gero ez du deitzen.
Badago jendea, hari whisky bat ez ordaintzeagatik deitu eta azkenean deia tragoa baino garestiago ordainarazten dizuna.
Badago deitu ezin diozun jendea, haserre dagoelako zurekin, edo kartzelan, edo zutaz ahaztuta, edo hilik; faena bat.
Badago zurekin hitz egiten duen bitartean sudurzuloa haztatzen duela gehiegi nabaritzen zaionik.
Badago jendea sekula telefonoa hartu ez baina beti hor dagoena txirrin-hotsak zenbatzen gela ilunean, edo, xanpaina kopa eskuan, mahats ale bana irensten duena txirrin-hots bakoitzeko.
Badago jendea ez dizuna deitzen, badakielako beste norbaitek hartuko duela agian.
Badago jendea geratzeko deitzen dizuna eta badago bere geratzeko modua telefonoz mintzatzea bera dena.
Badago hilaren hamahiruan deitzen dizuna beti, malenkonia esoteriko apur batez, beharbada.
Dakizuna berresteko deitzen diozuna.
Kontra egin diezazun deitzen diozuna.
Edo markatzen hasi eta bere telefonoaren azken zenbakia jada inoiz gogoan ez duzuna.

Eta gero dago, zu bezala, oso bakanetan deitzen diodan jendea:
adibidez su-eten bat apurtu, edota elurra ari duenean kanpoan, esateko: “eta orain zer?”, edo, “elurra ari din hor ere?”, eta zuk: “bai, ari dik”.

La gente a quien le telefono

Hay gente que una vez querias mucho, y que ahora solo le llamas el dia de su cumpleaños.

Que llamas para inflar los asuntos de trabajo y para pedir un favor.

Algun tonto de la facultad que te llama para medir tu nivel de fracaso: “yo no, pero el... *nunca*”.

Hay gente a quien le llamas cuando te ha dejado la mujer
(por otro lado, quien te llama solo cuando le ha dejado el marido

Hay gente que si estuviera mas cerca no le llamarias tanto.

Hay gente que le llamas para pedir cuentas,

Quien te llama para echarte la bronca.

Hay gente que te hace sentir a tu lado que esta a tu lado, aunque te llame cada cuatro años, mejilla a mejilla y de alma a alma te calienta el espiritu.

Hay llamadas que son espejismos en el desierto, anuncios fallidos;
le interesaría si, le ha tocado un.

Hay gente que, “ya te llamaré enseguida”,

Tiene siempre alguien más importante en la otra linea,

Y luego no llama.

Hay gente que, por no pagarle un whisky, al final la llamada te sale más caro que una copa.

Hay gente que no le puedes llamar porque esta enfadado contigo,
O porque esta en la carcel, o porque se olvidó de ti, o muerto; una faena.

Hay gente que mientras esta hablando contigo se le nota que esta urgandose los dedos en la nariz.

Hay gente que nunca coge el telefono pero siempre esta ahi en la oscura habitacion contando los sonidos de los timbres, o

Que con una copa de champan en la mano,

Traga una uva cada sonido de timbre.

Hay gente que no te llama,

Porque sabe que algun otro lo cogera, quiza.

Hay gente que llama para quedar

Y los hay que el simple hecho de hablar por telefono

Ya es una forma de quedar.

Hay quien te llama siempre el dia trece de cada mes,

Con una pizka de malenconia esoterica, quiza.

A quien llamas para confirmar lo que ya sabes.

A quien llamas para contrariarle.

O empezar a marcar y no recordar nunca como es el ultimo numero de su telefono.

Y luego los hay, como tu,

A quien llamo rara vez:

Por ejemplo cuando se rompe un alto el fuego, adibidez su-eten bat

apurtu,

O cuando hay nieve fuera.

Para decir: “¿y ahora que?”,

o, “¿ahí tambien nieva?”,

y tu: “si, nieva”.